

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

90/2026 Erabakia, otsailaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Domina Mikel Sánchez Álvarez ematea

Arabako Foru Aldundiak Arabako Domina eman dio Mikel Sánchez Álvarez doktoreari, bikaintasun klinikoa, berrikuntza zientifikoa eta pertsonen osasuna eta bizi kalitatea hobetzeko konpromisoa ezaugarri dituen ibilbide profesional aparta aitortzeko. Arabar sentitzearen harrotasunaren adibide ezin hobea da. Mikel Sánchezek agerian utzi du Vitoria-Gasteiztik munduko medikuntzaren liderra izan daitekeela, sustrai arabarrak galdu gabe. Traumatologiaren, kirurgia ortopedikoaren eta medikuntza birsortzailearen arloan egin duen lan aitzindariak patologia muskuloeskeletikoen ikerketaren eta tratamenduaren nazioarteko abangoardian jarri du Araba, eta erreferente bihurtu da bai estatuan bai nazioartean.

Mikel Sánchez Vitoria-Gasteizen jaio zen 1956an, Bordeleko Unibertsitatean egin zituen medikuntza ikasketak, eta Medikuntza eta Kirurgian lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean, 1979an. Traumatologia eta kirurgia ortopedikoan espezializatu zen Vitoria-Gasteizko Santiago Apóstol ospitalean, eta, harrezkero, erreferente bihurtu da bere espezialitatean.

Sánchez doktorea aitzindaria izan da Kirurgia Artroskopikoaren aurrerabidean Espainian eta Europan, eta lehen zirujaua izan da ulertzen Hazkunde Faktoreetan Aberatsa den Plasmak (PRFC) zer potentzial terapeutikoa duen traumatologiaren eta lokomozio aparatuaren arloan. Kirurgia Artroskopikoko Unitatea (KAU) sortu zuen 1995ean Vitoria-Gasteizen, mundu osoko espezialistekin lankidetzan aritu da, eta 170 artikulua zientifiko baino gehiago argitaratu ditu inpaktu handiko aldizkarietan, eta 10.000 aipamen inguru ditu ikasketa akademikoetan.

Mikel Sánchezek hainbat pertsona ospetsu tratatu ditu, eta duen ospea sendotu du, bai hemen, bai nazioartean. Hala, erreferentziatzko kongresu eta konferentzietan hizlari izan da, ikerketa proiektuen buru izan da, eta nazioarteko hamar patente inguru garatzen lagundu du. Standfordek Unibertsitateko "World's Top 2% Scientists Ranking" delakoan sartzeak munduko kirurgialari ortopediko eraginkorren artean kokatzen du. Bere lan ibilbidean zehar, erakutsi du asmo sendoa duela ezagutza partekatzeko, medikuntzaren aurrerabidea bultzatzeko eta pazienteen bizi kalitatea hobetzeko, soluzio terapeutiko berritzaile eta eraginkorren bidez.

Sustraietatik urrundu ordez, Sanchez doktoreak patologia muskuloeskeletikoen arretan, kirurgia artroskopikoan, terapia biologikoetan eta teknika kirurgiko berritzaileetan egin dituen ekarpen aitzindariak Araban garatzearen alde egin du

2025etik, Mikel Sánchez doktoreak Gasteizko MiKS ospitalean egiten du bere laguntza eta ikerketa lana. Sánchez doktoreak berak sustatu eta zuzentzen du erreferentziatzko zentro berritzaile hori, eta arreta osoa ematen die umeen zein helduen sistema muskuloeskeletikoaren patologiei. MiKS Ospitalean mediku zerbitzu aurreratuak eta medikuntza birsortzailearen arloko ikerketa, prestakuntza eta dibulgazioaren jarduera trinkoa konbinatzen dira. Gaur egun, bost unitate espezializatu ditu: kirurgia artroskopikoa, traumatologia eta kirurgia ortopedikoa, mina, terapia biologiko aurreratuak eta ikerketa traslazonala. Bertan, medikuntzan, erizaintzan eta ikerketan goi-mailako kualifikazioa duten profesional askok lan egiten dute, eta horrek bermatzen du bikaintasunezko arreta eta etengabeko berrikuntza ingurunea izatea.

Mikel Sánchez doktoreak horrelako zentro bat Araban garatzearen alde egin duen apustuari esker, konplexutasun handiko patologia muskuloesketikoen ikerketaren eta tratamendua-
ren abangoardian dago lurraldea. MiKS Ospitalea ez da berrikuntza medikoko nazioarteko
erreferentzia soilik, talentua erakartzen eta kalitatezko enplegua sortzen ere laguntzen du, eta
Sánchez doktoreak lurraldearen garapen zientifikoarekin, sanitarioarekin eta sozialarekin duen
konpromisoa sendotzen du.

Bere lan ibilbidean zehar, Sánchez doktoreak aitortza ugari jaso ditu, besteak beste, Vitoria-
Gasteizko Urrezko Domina (2007), Kirolari aplikatutako Arteen eta Zientzien 2014ko Sari Nazionala
(2015), Arabako Sendagileen Elkargo Ofizialaren Urrezko Domina (2023) eta Euskal Autonomia Erki-
degoko Medikuntzaren Errege Akademiak Akademiko Oso izendatzea (2024).

Aurrekoaren ondorioz, Arabako Foru Aldundiak Arabako Domina eman nahi dio Mikel Sánchez
Álvarez doktoreari, bere ibilbide profesionalaren eta Arabak medikuntza eta zientzia arloan duen
prestigioari eta proiektioari egindako ekarpen eredugarriaren aitortza gisa. Haren dedikazioaren,
lidergoaren eta etorkizun senaren eredia Arabako gizarte osoarentzat harro egoteko arrazoi bat
izateaz gain, osasun arloko profesionalen belaunaldi berrientzako pizgarri bat da.”

Horregatik guztiagatik, Ohore eta Goraipamen Araudia onesten duen apirilaren 8ko 23/2008
Foru Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arabako diputatu nagusiaren pro-
posamenez eta Foru Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Domina Mikel Sánchez Álvarez ematea, bikaintasun klinikoagatik, berri-
kuntza zientifikoagatik eta pertsonen osasuna eta bizi kalitatea hobetzeko konpromisoagatik, eta
Arabak MiKS Ospitalea bezalako erreferentzia zentro bat sustatzearen aldeko apustu irmoa egitea-
gatik, zeinak ezagutza sortzen, talentua erakartzen eta kalitatezko enplegua garatzen laguntzen baitu.

Bigarrena. 2026ko apirilaren 28an emango da domina, horretarako berariaz antolatutako
ekitaldi batean.

Hirugarrena. Domina eman izana ohore eta goraipamenen erregistroko dagokion atalean
inskribatzea.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinete eta Komunikazio zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN